

XXIX. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
egizu, Zuri eskainirik bizi gaitezela beti
eta bihotz leialez zerbitza zatzaigula.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 53, 10-11

*Bere bizia ordain ematen badu,
izango du ondorengo ugari.*

Isaias Profetaren liburutik

Jaunak nekeetan
lehertu nahi izan zuen.
Bere bizia ordain ematen badu,
izango du ondorengo ugari,
luzatuko zaizkio egunak,
beteko da Jaunaren nahia haren bitartez.
Bere oinazeen sari,
ikusiko du argia eta aseko da.
Jasan duenaren bidez, nire zerbitzariak
zuzentasuna emango dio askori,
haien hutsegiteak bere gain hartuz.

ERANTZUN SALMOA: Sal 32, 4-5. 18-19. 20 eta 22

**R/. Betor gugana, Jauna, zure maitasuna,
Zugan baitugu gure uste ona.**

Zuzena baita Jaunaren hitza,
leiala Hark egin duen guztia.
Zuzen eta bidezko dena du maite,
Haren graziaz lurra dago bete. R/.

Hara, Jaunaren begiak beldur diotenengana,
Haren maitasuna itxaroten dutenengana;
haiek baititu heriotzatik aterako,
eta gosetean aseko. R/.

Gure bihotza Jaunaren zain dugu,
lagun eta babes Bera baitugu.
Betor gugana, Jauna, zure maitasuna,
Zugan baitugu gure uste ona. R/.

II. IRAKURGAIA: Heb 4, 14-16

Goazen uste osoz graziaren aulkira.

Hebertarrei egindako epistolatik

Senideok: Jesus, Jaungoikoaren Semea, dugu zeruan sartu zen apaiz nagusi handia; eutsi diezaiozun, beraz, sinesmen aitormenari; gure apaiz nagusia ez baita gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait; baizik eta geure antzera gauza guztietan aztertua, baina bekatutik garbi. Goazen, beraz, uste osoz, graziaren aulkira; errukia iritsi eta behar orduko laguntza emango digun mesedea aurki dezagun.

EBANJELIOA: Mk 10, 35-45

Aleluia: Mk 10, 45

R/. Aleluia.

V/. Gizonaren Semea besteak zerbitzatzera etorri da,
eta bere bizia askoren erospen sari ematera. R/.

Irakurgai laburragoa egin nahi bada, [] kako artean ematen den zatia utz daiteke.

*Gizonaren Semea
bere bizia askoren erospen sari ematera etorri da.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

[Aldi hartan, Santiago eta Joan, Zebedeoren semeak, Jesusengana inguratu, eta esan zioten: «Maisu, eskatuko dizuguna Zuk guri egitea nahi genuke». Eta Jesusek esan zien: «Zer nahi duzue Nik zuei egitea?» Eta haiek: «Iguzu eser gaitzela bata zure eskuinetan eta bestea zure ezkerretan, zure aintza egunean».

Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete, Nik edango dudak kaliza edateko, edota Nik hartuko dudak bataioa hartzeko?» Eta haiek: «Bai, gauza gara!»

Baina Jesusek: «Nik edango dudak kaliza, bai, edango duzue, eta Nik hartuko dudak bataioa ere hartuko duzue: baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; hori erabakia dago».

Beste hamarrak, hori entzutean, biziros haserre jarri ziren Santiagorekin eta Joanekin. Jesusek, berriz, Bereganak bilduta, esan zien:] «Badakizue herrietako agintari azaltzen direnak gogor hartzen dutela menpean herria, eta handikiek azpian hartzen dutela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik eta, zuen artean handi izan nahi duena, bego zuen zerbitzari; eta zuen artean lehenengo izan nahi duena, bego guztien menpeko. Gizonaren Semea ere ez baita etorri besteen zerbitzuak hartzera, besteak zerbitzatzera baizik, eta bere bizia askoren erospen sari ematera».

Ebanjelio hau labur eran irakurtzen denean, honela hasten da: Aldi hartan, Jesusek, ikasleak Bereganak bilduta, honela esan zien: «Badakizue...».

Oparigaien gainekoa

Iguzu, Jauna,
dohain hauek bihotz zabalez eskaintzean,
zarbitzari gaituen sakramentu honek
garbi gaitzala.

Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengo

Eukaristia ospatzea balia dakigula, Jauna,
bizitza honetarako laguntza izan dakigun
eta betikorako argi.
Jesu Kristo.